



Gudarien etorbidea, z/g 20140 Andoain



zuzendariari@jalgi.com



943 300 228

OHARRA: Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 le-
rro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izena, telefonoa, helbidea
eta NAREN zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, zuzendaritzak
bere esku du horretarako eskubidea. Erdaraz iristen diren gutunak ez dira argitaratuko.



zuzendariari

Angelu ere baita Euskal Herriko geroa

Angelun bizi naiz, Hego-Kantona-
menduan, Aritzagako auzoan. An-
geluko historia idatzi dut ere, eta
erakutsi zenbatetaraino bere sus-
trai historikoak euskaldunak zituen
hoinbeste erdaldundua den hiri ho-
rrek. Zenbait urte barne, berrogei
mila hurbil jendez osatua den hiri
bat bihurtu da Angelu, arabera-
ko gizarteko harremanak eta kultura
bideak garatuz.

Hiri guzitan bezala, hizkuntza eta
kultura desberdinetako bizigune
da. Eta euskaldun gehienak hor bizi
gara basamortu batean bezala, au-
zo, talde eta erakunde desberdine-
tan. Bakoitzak bere aldetik jasaten
ditu bere bizi-egoerak, lanekoak ala
langabeziakoak. Halere euskara hor
dago, dantza, pilota ala irakaskun-
tza guneeetan, etxe barneetan ere.
Eta zenbatek ez dute beren etxe-
ari euskaldun izena eman? Aski da An-
geluko karriketan ibiltzea.

Ikusirik hiriak dituen oztopoak
bizitza sozial bat eratzeke, ez ote du-
gu elgarrekin zer bait egitekorik?
Bai, eta uste baino gehiago. Jakinez
hiri honetan dela ere Euskal Herri-
ko geroa.

Denen artean gauza anitz egin de-
zakegu. Hori du proposatzen Aber-
tzaleen Batasunak, ez bakarrik ja-
torriz euskaldunak direnei, baina
ere Angelun bizi diren guziei, Eus-
kal Herriko eraikuntzan gogoak eta
bihotzak bilduz, bakoitzak bere nor-
tasunarekin, baina denek bizi-ko-
munitate bat eraikiz. Gure arteko
indar desberdinak bildu behar ditu-
gu, Angeluko hiriari egokitua den
egitasmo edo xede bat gure artean
pentsatuz, gero bideratuz, alderdi
edo talde berexgorik gabe.

Ikusten dugu Hegoaldean nolako
bultzada eta esperantza berria eka-
rri duen, bake giro batean, Lizarra-
Garazi akordioak. Bide horren go-
goa eta izpiritua luzatu behar dugu
Angeluraino ere.

Bozka-kanpaina honetan, mira-
kuiluzko aterabiderik ez dut hitze-
man, mundu guzia eta ilargia gaine-
ra hitzeman. Denek baititugu, el-
garrekin, xedeak eta egitasmoak
bilatu eta pentsatu behar, eta ere
eraman behar. Ez dakit nolakoak
izanen diren heldu den igandeko
emaitzak. Baina, jakin ezazue era-
maiten ari dugun ildo hori, ez dela
ekainaren 20an bukatuko. Abertzale
indar bateratzaileen bidetik segi-
tzeko gogoak dugu, denek gaurko eta
biharko Euskal Herria eraikitzeke
Angelun ere. **Manex Goyhenetche**
• Abertzaleen Batasuneko kidea •
ANGELU (LAPURDI)

Oiloak eta dioxinak

Azken egun hauetan guztiz lotsa-
tua ibili naiz. Belgikako oiloen his-
toria honetan asko kezkatu gara de-
nok, dioxinak gure osasunerako
kaltegarriak direlako; eta hori logi-
koa da. Baina ez ditugu arazoaren
benetako arrazoiak aztertu: milioi-
ka animalia pilatzen ditugu, kon-
zentrazio-esparruak diren faktorie-
tan, gauzak izango balira bezala,
ahalik eta espaziorik txikienean sar-
daitezen. Farmakoz betetzen ditu-
gu. Gure sistemak sortutako hon-
dakinak eta bere organismoek onar-
tzen ez dituzten produktuak ematen
dizkiegu jateko. Edonola hiltzen di-
tugu, lehiakortasunaren izenean.
Eta gainera, horrek guregan eragi-
nik ez izatea nahi dugu...

Haragia, arrautzak eta esnea nahi

al ditugu, erraz, egunero, merke eta
ugarri? Lehen esan dudana bezala lor-
tzen dira. Ekonomiaren ikuspuntu-
tik, dena primeran. Baina etikaren
ikuspegitik? Bakoitzak bere ondo-
rioak atera beharko ditu. Nik neure-
ak atera nituen aspaldi: kontsumi-
tzaila bezala ez dut prozesu horre-
tan parte hartu nahi. Eta
barazkijalea izateagatik, gainera,
sustantzia toxiko askotatik librat-
zen banaiz... askoz hobeto. **Nerea**
Antia • GASTEIZ

«Viva Zaldibia»? EH=9, PSOE=0, PP=0. Non?

Igande iluntzean hauteskunde-
emaitzak iritsi ziren. Zifrak ikusita,
lortutako zinegotzien kopurua bere-
hala lortu genuen: 9. A zer poza! Ho-
ri festa! Guretzako garbi zegoen. Gi-
ro horretan ginela, ezustekoa! Non
eta Donostialdean, euforiko samar,
Odon Elortza Jaunak honelako
adierazpenak plazaratzen zituen:
«¡Viva Donostia! ¡Viva Zaldibia!». Us-
te zuen zinegotzi bat lortu zuela,
baina alferri. Lasai, Odon! Hor
daukazu historikoa izan den emai-
tza: erabat independentista, eus-
kalduna eta abertzalea. Zergatik
PP-k eta PSOE-k aurkeztu zituzten
udal langintzarako herrian bizi ez
diren pertsonen zerrenda mamuak?
Zergatik Zaldibian bereziki? Zer in-
teres zituzten Goierriko herri zora-
garri honetan? Aralarko herri honek
garbi esan die: «Hau Euskal Herria
da». Gora Euskal Herriarrok! Ta-
malez, Juan Mari Olano eta errefu-
xiatuen hutsunea nabaritu ge-
nuen, baina bidea irekita dagoela
ikusirik, laister gurekin izango di-
relakoan gaude. **Agustin Mujika** •
ZALDIBIA (GIPUZKOA)

galdeiozu...



Pepe Rei

KAZETARIA

Zer egiten du zu bezalako galiziar batek Euskal Herrian, batik bat hain ongi egokituta? Hasieratik sentitu al zenuen euskal kultura eta nortasunarekiko identifikazioa?

Eneritz Erezuma [Iruñea]

■ BETI SAIATU NAIZ galiziar ona izaten, eta, galiziar on gisa, ez nuen asko behar izan Euskal Herria maitatzeko. Galiziar ona izatea hori baita, zauden Herria maitatzea. Orduan, Euskal Herrian maila guztietan oso integratua sentitu izan naiz: maila politikoan, pertsonalean, kultur mailan... Ni Galizian jaio nintzen, galiziar izaten hilko naiz, baina ni Euskal Herrian hilko naiz.

Ekainaren 22tik aurrera
Eneko Olasagasti

• AKTOREA

izango da Galdeiozu ataleko gonbidatua.
Bidaliz zure galderak ordurako.

• MONTXO •

